XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

5763

EBAZPENA, 2012ko abenduaren 4koa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, bidaiarien hiri-garraioaren zerbitzu publikoa emateko,Transportes Urbanos de Vitoria, S.A. (Tuvisa) enpresak aurkeztutako 2013. urterako tarifak onartzekoa.

Euskadiko Prezioen Batzordeak, 2012ko abenduaren 4an egindako bilkuran hartu duen Erabakiaren xedapen zatia argitaratzen da, guztiek jakin dezaten.

ERABAKIA

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzan sarrera eman zaio Transportes Urbanos de Vitoria, S.A. (Tuvisa) enpresak aurkeztutako eskariari. Eskari hori bidaiarien hiri-garraioaren zerbitzu publikoaren 2013. urterako tarifak berrikustekoa zen.

Bidaiarien hiri-garraioaren zerbitzuari dagozkion tarifak prezioak kontrolatzeko araudiari loturik daude, «autonomia erkidegoko prezio baimenduak» modalitatean, ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege-Dekretuaren 16.4 artikuluari jarraiki, Izaera Fiskaleko eta Jarduera Ekonomikoa Sustatu eta Liberalizatzeko Presazko Neurriei buruzkoa (ekainaren 8ko BOE, 139. zenbakia).

Euskadiko Prezioen Batzordeari dagokio eskumen hori otsailaren 2ko 35/2010 Dekretuak, Euskadiko Prezioen Batzordea arautzen duenak (otsailaren 16ko EHAA, 31. zenbakia), eta 2010eko ekainaren 15eko Aginduak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarenak, baimendutako prezioak eta jakinarazitako prezioak berrikusteko prozedurari buruzkoa denak, xedatutakoaren arabera (uztailaren 64ko EHAA, 128. zenbakia).

Aipatutako arauak ekonomia-oreka jakin bat lortzekoak dira. Gainera, bizitza-kostuarekiko prezioak osatzeko tresnak zaintzekoak ere badira.

2013. urterako aurkeztu diren tarifak berrikusteko espedientea aztertuta, tarifak nahikotzat jotzen dira eta zerbitzua ematearen kostu-egituraren barruko kontzeptuetara egokitzen direla uste da.

Horrenbestez, Euskadiko Prezioen Batzordeak honako hau erabaki du:

Lehenengoa.– Transportes Urbanos de Vitoria, S.A. (Tuvisa) enpresak aurkeztutako 2013. urterako tarifak onartzea, Balio Erantsiaren Gaineko Zerga eta Bidaiarien Derrigorrezko Asegurua barne direla. Hona hemen kontzeptuak eta zenbatekoak:

Arrunta	1,10
Bonoa	0,54
30 eguneko bonoa	29,00
65 urtetik gorakoentzat doan, eta % 66 edo gehiagoko ezgaitasuna duten pertsonak	0,11
% 33 eta % 66a bitarteko ezgaitasun duten pertsonak	0,11
Ikaslearen hileko bonoa	29,00
Joan-etorria	1,40
Gauekoa (dirutan)	1,80
Gauekoa (diru-txartela)	1,35
Neurrira antolatutako garraio Bonoa	1,50
Neurrira antolatutako garraio Bonoa Familia Ugaria.	1,30
Neurrira antolatutako garraio Bonoa Familia Ugaria Berezia	0,75

Bigarrena.– Erabaki honek 2013ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dakioke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta hilabete biko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abenduaren 4a.

Euskadiko Prezioen Batzordeko burua,
JOSÉ LUIS HUALDE MAYO.